

ERREPORTAIA IZARTU II ETA ERREGETXEKO APARKALEKUEN GAIA
KIROLA ATXA MEMORIALAREN ANTOLAKETA UZTEA ERABAKI DUTE


piipilean

Soraltzeko Hamabostekaria 98. alea 2004ko urriaren 29a



MATXURA

legatz poperoen taldea



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022





JAIOTZE TASA GORA

NEREA ISASTI

Azkenaldi honetan, haurrak besterik ez ditut ikusten Soralezko kaleetan zehar. Jaioberriak, gehienbat. Eta harrigarriena zera da; hauetako bat jaio orduko, nire lagun edo ezagun bat haurdun dagoela jakituz dut.

Eta orduan zera pentsatzen hasten naiz. Tira, adina izango da. Norbera adin jakin batera heltzen denean, bapatean lagun ezkontzetara joaten hasten da, urte batzutan ezkontza bat baino gehiago egoten da koadriletan, ez pentsa broma denik. Gaur egun jendea gutxiago ezkontzen da, bai, hori egia da, baina gehienek tradizioa jarraitzea erabakitzen dute hala ere, nahiz boda erlijiosoa, nahiz zibila izan.

Eta handik urtebetera edo, sorpresa! Duela gutxi ezkondu den lagun horrek, haurdun dagoela esaten dizu konfidentzia gisa, tabernan zerbait hartu bitartean. Orduan konturatzen zara desberdin dagoela, begirada aldatu egin zaiola, ia ia adurra dariola. Eta laguna hain pozik ikusten duzu, zu ere poztan zarela, nahiz eta amatasun instinto hori zugaran piztu ez den arren.

Hilabeteak aurrera doazen neurrian, zure lagun horren haurdunaldia jarraitzen duzu. Are gehiago zure koadrilako bi lagunaldi berean haurdun daudenean. Eta asko ikasten da, ez pentsa. Nik gutxienez, uda honetan asko ikasi dut haurdunaldiari eta jaioberriari buruz. Dagoeneko, teoria ondo menperatuta daukat. Praktika beste gauza bat da, badakit. Eta momentuz ez daukat

martxan jartzeko asmorik.

Eta haur hoiek jaiotzen direnean? Es-treinatu berri den amatxo horrek mezu bat bidaltzen dizu mugikorrera. Esaldi motz bat besterik ez, jaio dela esanez. Zihero hunkituta, larrosa batzuk erosi eta ospitalera abiatzen zara jaioberria ikustera.

Haur asko jaio da aurten herrian. Eta ez dira nire gauzak, zifrak baizik. Aurten, dagoeneko 38 haur jaio dira Soralezko eta hemendik abendura 40 izango dira, agian gehiago. 2000. Urtean 24 haur jaio ziren, 2001ean, 28. 2002an, 29. Eta 2003an, 35.

Jaiotze tasa gora doa etengabe aspaldiko partez. Gu jaio ginenean, 74an, askoz gehiago ginen, baina 80 eta 90eko hamarkadetan gero eta haur gutxiago jaiotzen hasi ziren. Horregatik iruditzen zaizkigu altuak aurtengo zifrak. Dena den, kontutan hartzeko beste datu bat ere badago. Haur hauetako batzuk etorkinen seme-alabak dira, gure kasuan gehienak Ekuadorrekoak. Izan ere, beste edonon bezala, Euskal Herrian etorkinen kopurua areagotuz doa.

Jaiotze tasaren igoera oso berri ona da, dudarik gabe. Duela urte batzuk, jaiotza eta heriotzen arteko erlazioa kezagarria zen Soralezko. Badirudi hori aldatzen doala eta ez dela aldaketa puntual bat. Gutxienez datorren urteko jaiotze kopurua antzekoa izango da, kontutan hartuta une hone-tan haurdun dauden emakumeak.

Agian haur guzti hauen artean pelotari, futbolari, abeslari edota kazetari famatuen bat ateratzen da. Batek daki!

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. berriz be hemen gara. Stop. hego haizian moduan baztarrak berotzera jatoz. Stop. arbolak astindu eta hosto iharrak lurrera bota nahixan. Stop. eta ale hau mamitsu dator. Stop. harritzeko bezin mamitsu. Stop. Soraluze bizirik dago. Stop. oso bizirik!. Stop. Gaztetxian kontzertuak astero. Stop. eskubide sozialen inguruko erakus-keta eta hitzaldixa. Stop. Guatemalan inguruko ikusentzuekua. Stop. gazte talde bat Matxinatu egin da. Stop. eta gero esango dabe gaztiak pasibuak dirala. Stop. de dio!. Stop. gutxiengo oso aktibo bat dago orduan. Stop. gaitzerdi!. Stop. Udalak be gogor dihardu hirigintzan. Stop. ondo izartu dira bai. Stop. ia zineko izarrak noiz ikusten dittugun baina... Stop. (zirikatzia komeni da beti be). Stop. eta musika eskoliar urteurrena hilabete barru. Stop. presiñuak izan dittugu eta denboraz etara dogu. Stop. Sorana gogorra da. Stop. baina Atxa Memorialana gogorragua. Stop. diru faltaz halako ekitaldi edarra laga biharra. Stop. Udalak emoten ez badau eskian batu biharko dogu danon artian. Stop. eta bittartian legatzak tablatuan. Stop. eta ehiztarixak mendi gainian zain. Stop. arrakastaren zain. Stop. Egin Agenda 21ian usuen alde. Stop. eta jaiotza tasa kontrolatu deigun, mese-dez!. Stop. Soraluze bizirik dago bai!. Stop. oso bizirik!. Stop. eta R. Retolaza bebai. Stop. on egin!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoipezna:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALEZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Udalak, Izartu II egitasmoaren barruan Jaurlaritzatik jasoko duen 1.869.119 euroko dirulaguntzarekin herrian egingo dituen lanen berri eman du. Horretaz gainera, Saziako etxebizitzak egitearekin batera larriagotuko den aparkaleku arazoari irtenbidea emateko, Erregetxean lurrazpiko aparkalekuak egiteko asmoa adierazi du.

Zorion agurrak



Ariane Criado Martin
Urriaren 22an
3 urte
Zorionak politta!
guapa!
Gurasuen partetik.



Joseba Arrillaga
Azaroaren 13an
14 urte
Zorionak mutiko!
Muxu haundi
haundi bat.
Etxekuen partetik.



Nayara Zarobe eta Jaqueline Sombra
Azaroaren 2an eta 10ean
Zorionak!! Muxu haundi bat eta
egun eder bat pasatu daizuela!
Senitartekuen partetik.



Iraia De los Santos Pérez
Urriaren 1ean
urtebete
Zorionak!
Muxutxo bil!
Etxekuen partetik.



Gorka Salaberria
Azaroaren 5ean
Zorionak bikote!
Muxu haundi bat eta
segi alai alai! ja, ja!
Pilekuen partez.



Mirari Perez eta Danel Gonzalez
Urriaren 30ean eta 23an
Zorionak!! Muxutxu asko bixonda-
ko! egun urdin bat pasatu!
Senitartekuen partetik.

jaiotakoak hildakoak

Urko Alberdi Laskurain
Maria Gabilondo
M^a Rosario Romero

1964. Urtean
jaiotakoen bazkaria
Azaroaren 27an, 14:30etan
Txurruka Jatetxean.
50 Euroko ordainketa Kut-
xan egin behar da E. Gar-
mendia edo M. Oregiren kon-
tuan.



IKASTAROAK

Boluntarioak prestatzeko programa

Hauralde Fundazioak 15 orduko hiru prestakuntza-multzo osaturiko boluntarioak prestatzeko programa antolatzen du, 18 urtetik gorako adina dutenei zuzenduta. Programako multzoak: "Boluntarioen Prestakuntza: aldaketa-rako gune bat". Donostia, Irun edo Beasainen. "Lankidetzaren proiektuen formulazioa generoaren ikuspegitik". Donostian. "Boluntarioen lan-praktikak: esperientzia bat garatzea". Zarautzen. Informazio guztia lortzeko: www.hauralde.org. Epea: azaroak 8

LANA

Administrazio orokorreko kudeaketa teknikaria

Arrasateko Udalean Administrazio Orokorreko Kudeaketa Teknikari bat bi urteko eperako kontratatatzeko deialdia. Baldintzak: unibertsitateko diplomatuak edo baliokideak. Epea: azaroak 8

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiak ondorengo lanbideetako lan-poltsak osatu nahi ditu: Teknologia Berrien Sustapenerako Goi-mailako Teknikarien lan-poltsa, Laborategiko Erdi mailako Teknikarien lan-poltsa, errenta-kanpainetan laguntzeko Erdi-mailako Teknikarien lan-poltsa, Bide, Ubide eta Portuetako Ingegnarien lan-poltsa, Administrazio Orokorreko Teknikarien (AOT) lan-poltsa. Epea: azaroak 9

Astaldiko begiraleak

Arrasateko astaldiko Txatxilpurdi taldeak antolatzen duen Gabonetako Txikilandia Parkean lan egiteko begiraleak kontratatu nahi ditu. Baldintzak: 18 urtetik gora izatea. Epea: azaroak 26

BESTELAKOAK

Pisu berri bat salgai Soroluzen.
615779920

Gutunak

2004-09-08

Asier, Iñaki, nola ahaztu zuek ez egoteak guregan sortzen duen min sakona, nola bete zuek lagatako hutsunea? Nola ahaztu 2001eko irailaren 8ko larunbata, Lurdes bisitatzea joan Avilako kartzelara, ehunka kilometrotara dagoen kartzelara eta bizia lapurtu zizueten egun hura?

Hiru urte bete dira haize txar batek hartu eta eraman zintuztenetik hemendik. Haize txar horrek presoek sakabanaketa politika izena du eta oraindik indarrean jarraitzen du. Sakabanaketa politika horren ondorioz aurten jada, euskal presoek senide eta lagunek 34 istripu larriak izan dituzte erre-pideetan eta 96 lagunek izan dituzte kalte-ak.

Politika hiltzaile eta anker horrek 1987tik hona 19 euskal preso eta 15 senide eta lagun hil ditu.

Legebiltzarrean euskal presoek Euskal Herritarrean adostu zen eta ez da hori bermatu; euskal alderdi politikoek eta instituzioek sakabanaketari ez ikusiarena egiten diote.

Espetxe Erakundeetako Zuzendariak sakabanaketa politika gaitzetsi du baina euskal presoek ezarritako sakabanaketa zilegia dela dio. Espainiako Gobernuak gu eta gure senide presoak hiltzen jarraitzeko duen asmoa agerian utzi du.

17 urtetan alderdi "demokratikoek" mende-

ku eta gorroto politika areagotu egin dute, gure senideak gero eta gehiago urrunduz, gero eta gehiago isolatuz, Euskal Herriarekiko komunikazio bideak itxiz.

Zer lortu nahi dute? Euskal presoak pertsona moduan suntsitzea, besterik ez.

Baina astebururo-astebururo Pedro Jose (Castello), Lurdes (Huelva), Angelua (Alcala) eta Reginaren (Avila) senide eta lagunok heriotzara kondenatzen bagaituzte ere:

- Gure etxeko berotasuna gure senideei eramaten jarraituko dugu
- Gure maitasunak euren bihotzen taupadak bizkortuko ditu
- Gure adiskidetasuna gertu sentituko dute
- Gure begietako distira ikusiko dute
- Gure ahots, barre eta negarrak entzungo dituzte
- Gure laztan eta muxuak jasoko dituzte
- Guk idatzitako kontuak irakurriko dituzte
- Gure senide eta lagunetikiko komunikazioa ez dugu apurtuko
- Euskal Presoak etxetik gertu egoteko duten eskubidea aldarrikatuko dugu
- Euskal gizartearen nahia betetzeko lanean jarraituko dugu

Iñaki, Asier,
Ez adiorik gero arte baizik.
Maitasunez,
Soroluzeko Etxerat

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behe
Tfnoa 943 75 16 46

Zer irizten dotsazu?

Espainiako Gobernuak gida baimenaren puntu bidezko sistema ezarriko du 2005ean. Sistema berriaren arabera, gidabaimena ateratzeaz batera 12 puntu jasoko ditu gidariak. Lege hausteren bat egiten duen bakoitzean puntu kopuru bat galduko du. Trafikoko agintariek adierazi dutenez, bi urteren buruan errepideetako heriotza kopuruak %40an jeistea dute helburu.

Ze eritzi daukazu puntutakako karnet sistema berriaren inguruan?



Enrique Mendez
40 urte igeltserua
Nere ustez dirua etartzeko gauza bat da eta orain kotxea hartu baino lehen kontu gehixago euki beharko dogu. Abiadura, alkola eta alde horretatik istripuak gutxituko dirala uste dot.



Sandra Solana
34 urte etxeoandria
Bai neurrixa gustatzen jata, orain jende askok pentsatuko dau ondo, autuakin zoro-kerixak egin aurretik. Istripuak behera egingo dabe nere ustez.



Asun Prol
58 urte etxeoandria
Istripuak jeisten badira neurri hau oso ondo egongo da. Espero dot honekin jentia konzientzatzia ze oin oso tristia da ikustia zenbat jentek galtzen daben bizitza errepidietan.



Elias Perez
44 urte
metal arloko langilia
Nere ustez ez dau ezer hobetuko eta neurri hau dirua etartzeko da. Ze isunak jartzen jarraituko dabe eta gainera puntuak kendu. Zergatik ez dittue bakarrik puntuak kentzen?



Enrike Lopez
49 urte
autoeskolako irakaslia
Alde batetik neurrixa ondo ikusten dot. Ez dakit istripu gutxiago ekarriko daben baina jentia pentsatuko dau abiaduraz, alkola eta abar rez autua hartu baino lehen. Eta hori ondo dago behintzat.



Mireia Gabilondo
34 urte tabernarixa
Dirua etartzeko dala uste dot eta bene benetan jeisten badira istripuak, ba oso ondo. Esaten dabe oso errez galduzeinkezela puntuak baina badare neurrixa oso ondo ikusten ditudanak, umien autoko aukixa esaterako.

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

etxera

Telefonia 75 24 09

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

Limpiezas
Soraluze

Era guztietako garbiketak
Bulegoak - Komunitateak
Atariak - Garajeak

M. Carmen Alonso 690792816
Telefonia 943753079 - 20590 Soraluze



“Lurraren lege berriak ez du etxebizitzaren arazoa konponduko”

Martitzenean hasi eta ostirala bitartean, “Kale Gorrian” erakusketa ibiltaria izan da ikusgai Gaztetxean. Ekimen hau, Elkartzen elkarteak (gutun sozialaren aldeko mugimenduaren ostean sortutako elkarte) eta Soraluzeko etxebizitza duin baten aldeko Kale Kantalian plataformak antolatu dute elkarlanean.

Erakusketaz gain, guzti hori hobeto azaldu eta jendeari bere eritzia agertzeko aukera emateko, Elkartzeneko kide bat izan zen astelehenean.

Elkartzenek hiru aldarrikapen proposatzen ditu egoera soziala hobetzeko bidean; lanaren banaketa, soldata soziala eta etxebizitza eskubidea. Azken puntu honen gainean berba egin zuten gehienbat asteleheneko eztabaidan. Elkartzeneko kideak, Jaurlaritzak Madrazo sailburuaren bitartez berriki proposatu duen Ulurraren lege berriaren gaubeziak azpimarratu zituen, “etxebizitza hutsen inguruan ez dago neurri zehatzik eta nekazal lurren babeserako ere ez. Gainera, etxebizitzaren eraikuntzaren kudeaketa esku pribatuetan uztea proposatzen du. Eraikuntza ero honekin jarraitzeko apostua da huts hutsean”. Elkartzenek, “etxebizitza eskubidea errespetatzea, etxebizitza hutsen inguruan



presioa handitzea, alokairu publikoa bultzatzea (soldataren %15eko alokairuarekin) eta etxebizitzaren alorrean Udalekin batera gizarte eragileen partehartzea ziurtatzea” moduko neurriak proposatzen ditu espekulazioarekin amaitu eta etxebizitzaren arazoa konponbideak jartzeko.

Bertaratu ziren soraluzetarrek, herrian 100 etxebizitza baino gehiago hutsik daudela eta Udalak herriko gazteei etxebizitza eskuragarriago egiteko ez duela inolako neurririk hartzen salatu zuten.

Azaroaren 6an Eibarren egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dute elkarteok..

2An baserritarrekin bilera Udaletxean



Datorren martitzenean baserritarren eta Udalaren arteko bilera egiteko deia egin du Nekazaritza Batzordeak. Bilera arratsaldeko 19:00etarako dago deituta eta bertan baserritarren beharrian larrienak ezagutu eta 2005erako plangintzaren nondik norakoak zehazteko asmoa dauka Udalak.


Bestalde, baserritarren aspaldiko eskariari jaramon eginez, Udalak Debemenen laguntzarekin herriko baserriak seinalizatu berri ditu. Orain artean auzoetarako sarreretan zeuden mapak ziren baserrien kokapenaren berri ematen zutenak baina dagoeneko nahikoa zaharkituta zeuden. Seinalizazio berri honek larrialdi eta bestelakoetan, baserriaren kokapena zein den errazago aurkitzen lagunduko du.

“Inposizioen” aurkako intsumisioa

Herriko gazte talde batek, “Espainiar eta Frantziar estatuaren inposizioari aurre egiteko intsumisio mugimenduarekin bat egin” eta Euskal Herriko beste herri batzuetan egin den bezala herriko “Matxinada” simbolikoa antolatzea erabaki dute. Egitaraua honakoa da:

Azaroak 4an 19:00-tan batzorra Gaztetxean. Burutu nahi diren ekimenak zehazteko.

Azaroak 11n 18:00-20:00-tara EHNA-ren tramitazioa. 20:00-tan INTSUMITUEN kalejira.



Nekazaritza ekologikoa ezagutzen

Pil-pilean Kultura Elkarteak nekazaritza ekologikoa hobeto ezagutzeko irteera antolatu du azaroaren 20rako. Eibarko Sosola baserrira egingo dute irteera eta bertan, nekazaritza eta abeltzantza ekologikoaren filosofia eta produkzio sistemak ezagutuko dituzte, ogia egiten ikasteaz gainera. Egun guztiko irteera izango da, 12 lagunendako, 6 euroko prezioan. Izena eman nahi dutenek, Pil-pileanera deitu beharko dute azaroaren 17a baino lehen.

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



KALITATEA

Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32



VIDAL

frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055

Agenda 21-aren foroa egunean



Ingurune naturaleko arazoak lantzeaz gain, irisgarritasuna eta hondakinen kudeaketa bezelako gaiak ere landuko dira. Asteburuan eskuorriak banatuko dira etxeetan.

Datorren egunean, azaroaren 4an, arratsaldeko 19:30etan, Soraluze Agenda 21 egitasmoaren barruan antolatutako "herritarren foroa"ren lehen bilera egingo da Udaletxean. Udalak eta Debegesak elkarlanean bideratutako proiektua da eta bi erakundeok soraluzezar guztiei dei egiten diete, Forora joan eta euren eritzia eman dezaten. Iker Aldazabal Udaleko Ingurumen arduradunaren esanetan, "foro honen hel-

burua, herrian ingurumen eta garapen jasangarriaren aldeko bidean egin beharrekoaz soraluzezarren eritzia jasotzea da. Bakoitzak bere proposamenak egin eta eztabaidatzea". Iritzi hori ezagutzeko, hiru galdera nagusi planteatuko dira bileran, "zela ikusten duzu herria? zelakoa izatea gustatuko litzaizuke? zer ekintza egin litezke horretarako?".

Soraluze izango da Debabarrenean foroa sortuko duen lehen udalerrria.

"Guatemala gertutik" ikusentzunezkoa

Azaroaren 5 ean, gaueko 22:00 etan, "Guatemala gertutik" ikusentzunezkoa eskeiniko dute 3 plzentziatar gaztek; Maria Azkona, Eider Varela eta Arianne Unamunok, Gaztetxean. Orain dela urtebete pasa hiru hilabete egin zituzten bertan, kaleko umeei eskolak ematen batez ere.

Bizipen horren berri emateko asmorekin, diapositiba emanaldia eta hitzaldi bat prestatu dute. Hizlarien hitzetan "ez da bidai-kronika bakarrik izango, ertamerikar herrialdeko gaur egungo egoera sozial eta ekonomikuan gainian be berba egingo dogu".

Bestalde, ikasketak egiten jarraitu nahi duten Guatemalako gazteei laguntzeko, hilean 40 euroko bekak osatzeko laguntza ere bildu nahi dute. Irudian, Arianne Guatemalako familia batekin.



Udaleko langileek lan hitzarmeneko "inposizio" salaketa

Udaleko langileek Udalak lan hitzarmena zehazteko prozesuan izan duen jarrera salatu dute idatzi baten bitartez.

Idatzian, Udalak EUDELeke proposatutako igoera (%3,2) onartzeko hartu duen erabakia kritikatzeko, EUDELekekin osatutako negoziazio mahaian langileen ordezkartzaren %20a (CCOO eta UGT) besterik ez dela izan azpimarratuz. Langileek, soldataren igoera eskatzen dute langile guztientzat, KPI + 600 euro. 18.200 euroko gutxieneko soldata". Horrekin batera, urtero zerbitzu estukturaletako beharrak "zabor-kontratua" kalifikazioa merezi duten neurriekin jasaten dituztela ere salatzen du.

Azkenik, alkateak alde bakarreko erabakia hartzea salatu eta lan baldintzak negoziatzeko eskubidea aldarrikatzen dute, "gaur egun ukatu egiten zaiguna".

Ehiza postuak mendi gainean



Udazkenero moduan herriko hainbat ehiztarik uso paserako postuak ezarri dituzte mendi gainean. Batzuek pinu gainetan eta besteak garo artean ezkutatuta itxaroten diete ehiztariak Europako iparraldetik datozen usoei. Urriari hasi zen ehiza denboraldia eta hego haizea etortzearekin batera hasi dira usoak igarotzen. Dagoeneko uso mordoxka pasatu omen da.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Izartu IIko lanak eta lurrazpiko aparkalekuak

Udalak, Izartu II egitasmoaren barruan Jaurlaritzatik jasoko duen 1.869.119 euroko dirulaguntzarekin herrian egingo dituen lanen berri eman du. Horretaz gainera, Saziako etxebizitzak egitearekin batera larriagotuko den aparkaleku arazoari irtenbidea emateko, Erregetxean lurrazpiko aparkalekuak egiteko asmoa adierazi du, nahiz eta oraindik aurrepausu gutxi batzuk besterik ez diren eman herritarrak asmo horren jakinaren gainean jartzeko.

2.492.159 Euroko aurrekontua

Izartu II egitasmoaren barruan egingo diren hirigintzako lau ekintzek (ondoko kuadroan zerrendaturik datoz) 2.492.159 euroko aurrekontua izango dute. Debabarreneko bailaran, Ermuaren ostean Soraluze izan da bigarren Izartu egitasmo honetatik dirurik gehien jaso duen herria. Aurrekontu osoaren %75a (1.869.119 euro) Jaurlaritzak jarriko du eta gainontzeko %25a (623.040 euro) Udalak berak jarri beharko du.

Egitasmoa 2005ean hasi eta 2009 arteko epean betetzea aurrirakusten da. Izartu I egitasmoaren barruan, herriaren erdialdea trafikoz arintzeko asmoarekin Olatik Ezozki Etorbiderako sahisbidea egin ostean, Izartu IIko lanik garrantzitsuenak, herriaren erdigunea oinezkoendako egokitzea izango du helburu.

Azaroaren amaierarako estaziokozubia amaitua izatea espero du Udalak. Ondoren asfaltoa eta espaloiak jartzea faltako da Izartu Ieko lanak amaitutzat emateko eta datorren urtean hasiko dira Izartu IIko lanak.

HERRIGUNE HISTORIKOAREN PEATONALIZAZIOA



***Aurrekontua:** 1.882.370 euro
***Epeak:** 2005 urtean Kalebarren eta Santa Ana. 2006an Plaza Zaharra, Etxaburueta eta Zubi Nagusia.
***Ekintzak:** Aipatutako kaleak eraberritu eta espaloiak desagerraraziz oinezkoendako egokituko dira.

EZOZI ETORBIDEKO ERLAITZA (BOLADIZOA)



***Aurrekontua:** 104.400 euro
***Epeak:** 2006an
***Ekintzak:** Ezoziko Etorbidearen amaieran, Ezozki auzorako bidea hasten den lekuan, oinezkoendako erlaitza egingo da bidearen ondoan.

HEGOALDEKO SAHIESBIDEAREN PEATONALIZAZIOA



***Aurrekontua:** 209.152 euro
***Epeak:** 2008an
***Ekintzak:** Errekalde, Atxuri, Errabal eta Baltegieta kaleak eraberrituko dira. Espaloiak kendu eta oinezkoendako egokituz.

ARRAIKUA AUZOKO URBANIZAZIOA



***Aurrekontua:** 278.869 euro
***Epeak:** 2005ian
***Ekintza:** Saziako urbanizazioaren ondoan geldituko den lur eremua urbanizatu eta aisialdiko gune bat egingo da.

LAUDIN
 PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
 138 Postakutxa Faxa: 943752118
SORALUZE

etxebarri®
 etxehun

Barra kargadore automatikoak
 eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
 Tfnoa 943 75 18 91
 Faxa 943 75 24 58
 E - maila: etxehun@teeline.es
 etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
 Gipuzkoa

Erregetxeko egitasmoa

Hirigintza batzordeburuak adierazi digunez, azken urteetan herrian aparkalekuekin sortu den eta etorkizunean Saciako aparkalekuak hustearekin larriagotzeko itxura duen arazoari aurre egiteko helburua du Erregetxean lurrazpiko 120 aparkaleku eraikitzeko egitasmoak. Aurreko urteetan ere erabili omen dute gaia esku artean baina orain, Saciako etxebizitzak egitearekin batera eta ingurua urbanizatzearekin batera erabaki dute egitasmoa garatzeko lehen pausok ematen hastea. Horretarako antolatuta zuten hain zuzen joan zen hasteko aurkezpena, "herritarrei gure asmoen berri eman eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa herrian dagoen interesaren arabera neurtzeko".

Herritarren interes handia baina informazio gutxi

Hirurogei herritar baino gehiago hurbildu ziren Udalak joan zen egunean Udaletxean egin zuen aurkezpena. Argi gelditu zen herritarrek interes handia dutela aparkalekuen gaiaren inguruan. Udalak, 120 aparkamentu egiteko asmoa adierazi zien, kontzesio (60 urteren ostean jabetza Udalarengana bueltatuko lukeen sistema) bidez norbanakoei eskeiniko zaizkienak. Herritarrek, plaza bakoitzak izango lukeen prezioa, epeak, sarbideen kokapena eta bestelako hainbat gairekiko jakinmina adierazi zuten baina Udalak oraindik informaziorik ez duela erantzun zien.

Izena emateko zerrenda

Aurkezpen egunean Udaletxera hurbildu zirenak asko izan baziren, ez dira askoz gutxiago izan Udalak aparkaleku bat hartzeko interesa duen jendeak izena eman dezan jarritako zerrendan apuntatu direnak. Dagoeneko 50 lagunek eman dute izena zerrenda horretan eta Udalak datozen asteetan jende gehiago hurbilduko denaren itxaropena dauka. Zerrenda horrek herritarra ezertara behartuko ez duen arren, komenigarria da azpimarratzea Udalak etorkizunean egingo liratekeen balizko zozketetan zerrenda hori oinarritzat erabiltzeko asmoa daukala. Izena eman nahi duenak, azaroaren 15erarte izango du

**Ez da erreza izaten Erregetxean autoa aparkatzeko lekua aurkitzea.****HERRIKO DATUAK**

*Aparkalekuak: 1.768
(1.200 publikoak eta 568 pribatuak)

*Autoak: + 2.100

*Beharra = 333

UDALAREN ASMOA

* 3 Solairuko lurrazpiko aparkalekuak egitea.

* 120 Plaza
(Solairuko 40)

* Ahalik eta plaza gehienak kontzesio bidez eskekintzea.

**Oscar Gabilondo izan zen egitasmoaren inguruko azalpenak eman zituena.****Egitasmoaren aurkezpena bildutakoek jakinmin handia adierazi zuten.**

aukera Udaletxean.

Oposizioko taldeen eritzia

Udaleko oposizio taldeei gaiaren inguruan galdetu diegunean, orohar bat etorri dira Erregetxeko aparkalekuen egitasmoa garatzeko antzematen den beharrarekin, nahiz eta, PSEEk eta PPK oraindik egitasmoaren inguruko eritzirik osatzeko astirik izan ez.

SAHeK beharrezkoa ikusten du proposatzen den proiektua, hala ere gogorra ekarri nahi du, bere garaian larogearren hamarkadan, SIE ren (Soraluze-ko Independentien Elkarte) eskutik aurreproposamen bat aurkeztu zela, "250 plazako aparkalekuak, goikaldean 2000 metro koadroko plaza eta Saciaren hormaren kontra frontoi bat. Orduan Udal gobernuak, diru arazoak zirela eta, ezezkoa eman omen zien.

SAHK ezertan hasi aurretik ezinbestekotzat jotzen du ikerketa sakon bat egitea, beharrezko katak eginez eta Erregetxe azpitik doan erreka kontuan hartuz. Bestalde, inguruan egin behar diren beste hirigintzako lanekin, Saciako etxeen proiektuarekin esaterako, bateratu beharra azpimarratzen dute.

Gerora, espekulazioaren arriskuari aurre egin eta soraluzetar guztiak aparkalekua izateko duten eskubidea bermatzen lan egingo dutela adierazi dute.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

Musika Eskolaren XV. urteurrena



Soraluze Musika Eskolak sortu zeneko XV. Urteurrena ospatuko du aurtten. Horretarako hainbat ekitaldi antolatuko dituzte urte guztian zehar. Has-teko, Santa Zezilia, musikarien eguna, modu berezi batean ospatuko dute aurtten. Azaroaren 20rako (zapatua) hainbat ekitaldi antolatu dituzte herria musikaz jazteko.

11:00 etan Kontzertuak eta kalejirak herriko toki eta kale ezberdinetan.

14:30etan Herri Bazkaria kirolde-

giko frontoian.

17:00etan Karaokea denondako.

18:30etan "Galtzagorri" txaranga-ekin kalejira.

HERRIA BAZKARIA

Bazkariko menua: Patatak errioxar erara, oilasko errea letxugarekin, ijito besoa izozkiarekin. Ura, ardo beltza edo gorria, sagardoa eta kafea. Txartelak 13 eurotan daude salgai dagoeneko Gila tabernan eta Iratxo goxodendan.

Mikel Arrillaga eibartarraren bertsoak garaile



Mikel Arrillaga eibartarra izan da aurtengo Soraluzeko bertso paper lehiaketako nagusien mailako garailea, "Albistearen harira" bertso sortarekin. Bigarren Eneko Beretxinaga soraluzetarra gelditu da "Larunbat gaueko kronika" bertso sortarekin eta 16 urte artekoen mailan Ainhoa Mendibil elgoibartarrak jaso du lehen saria "Bakardadeari azken berbak" bertso sortagatik. Hala erabaki dute txapelketa honetako epaile izan diren Ainhoa Agirreazaldegibergararrak eta Arantzazu Loidi aretxabaltarrak zazpi bertso sortaren artean. Arrillagak telebistako albistegietan

azaltzen diren berri eta irudi tragikoen errepaso bat egin du bere bertsoetan. Hona sortako bertsoetako bat:

Honen hanka eta haren burua ez da agertu, senide galduen bila jendea negarrez, estu, benetan gertatu dena ez dute gura ulertu, odol tanten zaparrada oraindik ez da atertu. (BIS)
Pantailan agertzen dena ia ezin da sinestu: trenetako gorpu hilak ezin dituzte baztertu, Aznar jarri zen hiltzaile krudel ilunaren gertu, metxa Iraken piztu zen eta Madril lehertu. (BIS)

Doinua: Jon Maiak txapelketan ateratakoa.

Zapatuan Jonu bakarlaria Gaztetxean



Zapatu honetan, Jonu bakarlaria bizkaitarraren kontzertua izango da entzungai Gaztetxean. Kontzertua gaukeko 22:30etan hasiko da eta Jonuk, bere diskoko kantuak eskeiniko ditu gitarrarekin.

Gaztañerre Azokako babajana

Pil-pilean Kultura Elkarteak babak prestatzeko txapelketa eta herri babajana antolatu du azaroaren 13rako. Txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek Pil-pileanen eman behar dute izena eta bazkarian partehartu nahi dutenek, Gila, Arrano eta Iratxon izango dituzte txartelak salgai 12 euroko prezioan. Iluntzean erromeria izango da Amaiur taldearekin frontoian.

Danbaka lehiaketako kontzertuak Elgetan

Datozen asteetan Danbaka maketa lehiaketako kontzertu gehiago izango dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Hona egitaraua:

Azaroaren 5ean:
Denial (Arrasate-Aretxabaleta)
Dixie 900 (Bergara)
Enboskada (Arrasate)
Neure baitan (Arrasate)

Azaroaren 19an:
Isarevolution (Arrasate)
Malenkonia (Oñati)
Muted (Arrasate-Abadiño)
Izas (Elgeta)

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22. beheko, telf: 943751780

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



MATXURA / Emopop legatzak



Gorka, Loiola eta Kiru, Matxura taldeko musikariak.

Bateriajole eta bajista plazentziarrek, abeslaria elgetarra. Taldearen izena Matxura. Azken aurreko kontzertua Elgetako Espaloia Kafe Antzoki berrian eman dute 400 lagunengoa, Debagoieneko Danbako maketa lehiaketaren barruan. Azken berriz, Soralezuko Gaztetxean bertan, pasa den astelehen buruzurrian. Estilo berezia dute "Emopop legatza", eurak ere oso bereziak eta horrek gaurko musikaren munduan urrea balio du.

Noiz hasi zineten Matxurakin?

G: Hiru urte dira Loiola eta bixok hasi ginala. "Manbo" baten komentau egin notsan ia animauko zan nerekin josten eta baietz esan zoztan. Baltegiatoko lokaltxo baten, "Kajoian", hasi ginan batera josten. Nik kantu batzuk etxian egin da neuzkan eta hortik hasi ginan. Handik bi urtera, bajista bat bihar genduan eta Kiru etorri zan.

Izena nundik etara zenduen?

G: Elgetan lagunartian batenbatek proposatu zeban. Honek komentau notsen, gustau jakuen eta besterik barik.

Botaziñorik ez zan egon?

K: Ez. Al unisono esan genduan baietz.

L: Unisonamente. Nota baten barruan; Si Bemol mayor.

Nun entsaiatzen dozue?

L: Plaentxian (Loiolan garajian) eta Eibarren (Udalaren lokaletan). Eibarren lokal asko dago musikarixendako.

K: Eta laster hasiko gara Soralezuko Udaletxiak emon doskun lokal super guapuetan entsaiatzen. Bueno bakarra da. Eskerrikasko eh!

Azkenaldixan toki askotan jo do-

"Oin nahi dogu pixkatian geldittu. Kantu gehixao etara, entsaiatu eta beste gitarra bat sartu."

zue...

G: Soralezuko Gaztetxian, Beran, Eskoriatzan, Arrasaten, Oñatin eta Elgetako Kafe Antzokixan Danbako lehiaketan.

K: Gure helburua da, bizitzia Gaztetxietan jotietatik!

Mugimendu pixkat badarabizue.

G: Bai, baina oin nahi dogu pixkatian geldittu. Kantu gehixao etartzia nahi dogu eta nahi dogu entsaiatzia pixkat. Gitarrista bat be sartu bihar da, Eibarko gitarrista bat.

Ze musika mota da zuena?

K: Emopop! (*barre algarak*)

L: Gehixenbat popa, rock ikutu batzuekin.

G: Gaur irakurri dot asteleheneko Goienkarian... kritikatu gaittue, "oso pop dotorea" eta "musika legatza" moduan. Zer da legatza?



HAIN GERTU

Hain gertu ikusten zaitut
hain gertu somatzen zaitut
denborak banatzen gaitut
denborak batuko gaitut
iritsiko da egun bat erloju orratzak
bezala elkartuko garen
denbora agortuko den,
orduan izango gara aske
ez ezereen menpe....

Egilea: Igor Arizmendarreta

Merluza!

L: Ah! Musika merluza orduan!

K: Legatzak deittuko gara! (*barre algarak*)

Kritikuak diñue Bide Ertzeanen antza daukazuela...

L: Hori egixa da. Abesti batzuk bai **Letrak zuek egitten dituzue?**

G: Batzuk nik egitten ditut eta beste batzuk anaia, Iñaki Zubirreta eta Juan Mari Irigoien idazliak egindako letrak be badare.

Danbakako esperientzia zelakua da?

G: Berrogei talde aurkeztu dira (Debagoienekuak) eta hogeitaukeratuen artian sartu gaittue. Oso maila ona dago. Barikuro estilo ezberdinak taldiak josten dabe Elgetako Kafe Antzokixan eta oso giro ona sortu da. Jentia ezagutu, baliabide onak...

L: Entxufia daukagu ta...irabaztera goiaz. (*barre algarak*)

K: Debabarrenekuak hartzeko moduko ekimen bat da. Politta litzake hemen antzeko zeezer gaittue.

Honetatik bizitzeko ametsik?

K: piiiiiiiiiiiiiii! (*barre algarak*)

L: Zu barkatu, ze mediotakoa zara zu?

Washington Post.

Atxa Memoriala bertan behera geldituko da diru beharragatik



Joan zen urteko Atxa Memorialeko irteera eta antolatzaileak sariak banatzen.

Atxa Memorialeko antolatzaileek memoriala antolatzeari lagatzeko erabakia hartu dutela jakinarazi dute. Jesus Atxa sorluzetar korrikalariaren omenez hogeitabi urtean hutsik egin gabe memoriala antolatu ostean, lasterketa antolatzeak dakartzan gastuei aurre egiteko ezintasunak eta Udalak dirulaguntzak bere horretan uzteko hartutako erabakiak antolaketa bertan behera lagatzera behartu ditu. Honela dio antolatzaileek kaleratu duten idatziak:

- " Memoriala antolatzeko orduan gastuak asko gehitu dira, batez ere pesetatik aurorako aldaketa dela eta.

- Azkeneko urteetan trofeo eta opariak gure herriko dendetan erosteari utzi, eta produktuak merkeagoak diren beste denda espezializatu batzuk bilatu behar izan ditugu kanpoan.

- Orain arte antolakuntza ez zen gerta zitezkeen istripuez kargu egiten. Gaur

egun hau ez da legala, beraz gertaera hauek kubritzen dituen aseguru poliza bat kontratatu behar dugu.

- Udaletxeak ematen digun diru laguntzak urteetan zehar ez du igoerarik izan. Otsailean baztordearekin bildu ginen, eta joan zen edizioko gastu eta diru sarreraren balantzea aurkezteaz gain Udaletxearentzako diru laguntzen proposamen bat eraman genuen. Batzorde hartan denak ados zeuden, baina 2004ko Apirilaren 5ean alkateak sinatutako ohar bat jaso genuen, non aurtengo diru laguntza, joan zen urtekoaren berdina izango zela zioen. Beren soldatak %21^a igo dituzten bitartean.

Besterik gabe, eta urteetan zehar ezerren truke memorial honen ospakizunean lagundu diguten pertsona eta saltokiei eskerrak eman eta gero, zera adierazi nahi dugu; horrelako baldintzetan ezin gara hurrengo memorialaren kargu egin."

EMAITZAK

Futbola

-urriaren 23-24an-
SORALUZE 1 - Urnieta 2 (Erre.)
Lengokoak 10 - SORALUZE 0 (Juben.)
Aretxabaleta 7 - SORALUZE 0 (Kadet.)

Esku pilota

Aitor Atxotegi
Kluben Arteko Txapelketa Eskuz binaka
(Iker Txurrukarekin)

Urriaren 15ean
22-15 irabazi Añorga Illren aurka

Urriaren 22an
22-02 irabazi Zazpi-Iturriren aurka

AGENDA

Futbola,

Zarautz - Soraluze (Erreg.)
Soraluze - Antoniano (Juben.)
Soraluze - Ikasberri (kadet.)

Esku pilota

Urriaren 29an
Aitor Atxotegi
(Kluben Artekoa)
Elgoibarren Hernani Illren aurka
22:00etan

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

OITXURRI
ARDAU-DENDA

Gabolatz Kalea, 28
20590 SORALUZE

☎ 605 768 151 (Naiara)
☎ 667 479 350 (Roberto)

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

EQUIPAMENTOS GANADU-HARGA
CERTICAR
CERTIFICACION DE PRODUCTOS GANADEROS
CARNES DE VACUNO CERTIFICADAS

Instalazioak
Berrikuntzak

KIRU
muntaiak

**Kiru
Muntaiak S.L.**

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

PANAGIOTIS HALKIAS

“Durangora etorri nintzan dantzara oin urte batzuk, hango dantza talde batekin herri dantzak egitten dittutelako”

Herri honetan kale kantalerako batenbat topatzia geroz eta zailago dago, kamareri alergia dotsan jende asko dago kalia, irakurtzerako orduan gustora egoten gara baina... Tira neure burua elkarrizketatzia pentsatzen nebilela topatu dot Panagiotis, Greziako mutil bat, pixkat galduta Plaentxiako kalietan. Hasi banaiz hasi naiz, ez euskeraz eta ez gazteleraz, ingleseaz egin dogu elkarrizketa. Azkenian zerbeza bat hartuta elkar ulertu dogu eta hona emaitza.

**Izena, edadia, lanbidia, jaioterri-
xa?**

Panagiotis Halkias, 24 urte, Ingeniari zibila, Nea Kalikratia, Greziako herri bat.

Zelakua zara?

Tipo serixo, desordenatua, despistatua...

**Zenbakixa, koloria, animalixa,
abestixa?**

2-xa, beltza, tigría, Stairway to heaven (Led Zeppelin)

**Aisialdiko denboran zer egitten
dozu?**

Musikia jo, pianua, baterixia eta gitarría eta lagunekin egon.

**Eguneko momenturik onena eta
txarrena?**

Okena gaba, lasaitxasuna egoten dala-ko eta txarrena goizaldia jaikitzea asko kostatzen bait jata.

Zeri ez zontsake ezetz esango?

Kontzertu on bati.

“ Gabak, festak harritu naute, oso bestelakoa da Grezian, kriston giro ona dago hemen ”

Nora zeinekin eta zertara?

Neskalagunarekin, oporretan India-
ra.

Ta zeinekin ez?

Jorge Bush-ekin edonora edozertara.

Gustoko menua?

Fideo txinarrak, bakilaua piparrekin eta Greziako yogurt goxuak.

Lehenengo aldiz etorri zara

Euskal Herrira?


Oin urte batzuk etorri nintzan Euskal

Bertso Begiz

*Greziatik honaino
egin du bidea
berak aitortu digu
ai, ze despistea!
Musikarako dauka
Abilidadea.
Ahaleginduz hemengo
tonuan jartzea
loru du gau festaren
lagun egitea.*

Neko

(doinua: asteburu aldera..)



Panagiotis Halkias

Herrira. Durangora etorri nintzan dantzara, Greziako herri dantzak egitten ditutelako hango dantza talde batekin. Orduetik Abadiñoko neska batekin nabil eta urtero etortzen naiz. Soraluzen lagun bat daukatelako etorri naiz gaur hona.

Zer diferentzia topau dozu grezia eta Euskal Herrixan artian?

Jateko modua, gidatzeko era, diberti-

tzeko era, izateko era...Greziarrok lasaixauak gara.

Euskal Herritik gehixen erakarri zaittuana?

Gaba. Festak harritu naute, oso bestelakoa da Grezian. Han tabernetan jarrita egoten gara. Dantza egitera diskoteketara joaten gara. Kriston giro ona dago hemen. Datorren domekarrate ahalik gehien gozatuko dut.

Mendata taberna



Berezitasunak:
*Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...*
Asteburuan plater
konbinatuak
*Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)*

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Argazki zaharra



1944. Urteko Luistarren ospakizuna

Migel Etxabeguren oñatiarra parroko zala egindako ospakizuna. Plaza Zaharrian ageri dira Luistarrak, San Luis eta Amabirjina eurekin dituztela. San Luis eguna ekainaren 21an ospatzen da baina argazkiko bilkura negu girokoa da, arbolak hostorik barik ageri dira eta.

Norbaitek argazki honen inguruko argibide gehiago eman ahalko balitu, eskertuko genioke gurekin harremanetan jartzea.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU

943 75 13 04 ra

erantzuna...

Txokoloneko etxietan bi lehio dare sobran

Aurreko alean...



...eta irabazlea:

ROBERTO RETOLAZA



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze



kutxa

gizarte ekintza

Aurreikuspen / pentsio planak



1- Sandwich-ontzia 2500 €-tako ekarpena
2- Laberako kristaleko erretiluak 2500 €
3- Dekantagailua +6kopa 5000 €

4- Gosaritarako sorta 5000 €
5- Express kafe-makina 8000 €
6- Lisaketa ekipoa 15000 €

Santa Ana, 18
Telefona: 943 751 238
Faxa: 943 753 103
20590 Soralue/ Gipuzkoa

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



euskarazko kazetaritzaren I.kongresua



Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuak lau helburu ditu. Lehenengo eta behin, euskarazko kazetaritzaren diagnostikoa egiteko beharra azpimarratu dute antolatzaileek, horren ahuleziak eta indarguneak sektorez sektore zehaztuta. Bigarrenez, euskarazko kazetaritzaren etorkizunaz hausnartuko dute Kongresuan. Hirugarrenez, eta aurrekoetatik ondorioztatuta, euskarazko kazetaritzaren Liburu Zuriaren abiapuntua finkatzeko asmoa du Kongresu honek, beharrezko plangintza estrategikoa azalduz. Azkenik, eztabaida maila teorikoan jarriko du.

|2004ko azaroaren 9tik 12ra|
|euskalduna jauregian|
|bilbo| www.ehu.es/kongresua



Ion Murgizu Pinturak

- Margoketa orokorrean -

Empapelatuak,

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Telefona 943751324
Mugikorra 652777030
Ezoziko etorbidea 24 2 behea
20590 Soraluze

EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE